

**URTEBIKOAREN PLANGINTZA**  
**(Egoera - Lanak - Asmoak - Helburuak)**

1977-1978

*Fr. L. Villasante*

Bi urterako plangintza? Epea motxegia izanik, ez ote da nahi-eta-nahi-ez ikuste laburrekoa izango? Bai, hala da. Gaur, batez ere, Euskaltzaindiak urrunago ere begiratu beharra du. Plangintza bat luzaroagorako ere egin behar du, alegia.

Badirudi aro berri baten aitzinean gaudela. Ondoko urteetan, oker ez banaiz, zereginak alde guztietarik hibaika etorriko zaizkigu, uholdeka. Baliteke orai arteko gure egiturak ttipiegi gelditzea eta berriztatu behar izatea, gainera datozkigun eginbeharrei erantzungo baldin badiegu.

Horregatik, nik hemen orai egin dezakedan plangintza hau baino sakonagorik ere beharko da egin. Hotz-hotzean ikusi zein diren euskeraren aldetik ditugun premiarik eta zulorik nabarmenenak. Eta ikusitakoan, zulo hoik estaltzeko bideak bilatu. Adibidez, zenbait lagun istudio jakin batzuk egitera bidali, hortarako bekak emanez. Hori Euskaltzaindiak hasiberri hartan egiten zuen. Edo lan konkretu batzuk zenbaiti agindu, ordainduz, noski. Etab.

Egia esan, Euskeraren Liburu Zuria —beherago aipatuko duguna— hunelako zerbaite izango delakoan gaude. Oinarrizko azterketa eta plangintza nagusi bat, alegia, ez bi urterako, epe luzeagorako baizik, euskerari buruz ditugun huts nabariak betetzen joateko. Eta Liburu Zuri horretan egingo denaz gainera, epe luze baterako plangintzek ez ligukete kalterik egingo, mesede baizik, inork egin nahi balitza.

Edozein modutan ere, ni hemen urtebikoari lotzen natzaio xoilki. Eskuen artean ditugun lan eta asmoen egoera gogoaraz, lan hoik bana-banaka aipa eta bakoitza bururatzeko zer behar den galde: hori da ene xedea.

Txosten hau gertatzeko, Idazkariak eta Idazkari ordeak bidalitako oharrak ikusi ditut. Eskutitzak ere jaso ditut zen-

bait batzorderen Idazkariengandik. Santamaria jaunak ahoz ideia batzuk agertu zizkidan. Etab. Guztiei eskerrak eman nahi dizkiet.

## LEGEZKO NORTASUNA

Joan den urtean Euskaltzaindiak urrats handi bat eman du bere legezko egoeraren gaurkotzea eginez. Erregek Dekreto berezi baten bidez Euskaltzaindia onartu du. Urrats hunen ondorio batzuk laster ezagutu dira, baina, jakina, oraino asko dago egiteko.

Orai badirudi beste aurpegi batekin mintza daitekeela Euskaltzaindia euskerari buruzko arazoetan, batez ere Estatuak berak jarritako kargudunekin. Eta badirudi poliki-poliki Euskaltzaindiak euskal arazoetan mintza-lagun edo "interlocutor" izatera heldu behar duela Estatuaren aurrean. Bideratu beharreko istilu asko dago eremu huntan, batez ere Irakaskintza kontuan. Egia da Irakaskintza eta Pedagogia ez direla gure eremuko sailak, zuzenean behintzat. Baina hizkuntzaren normatiba ematea, bai, gure arazoa da. Eta Euskaltzaindiak lan egin behar du haintzat hartua izan dadin. Gure tituluaren balio arazoa ere hor da.

Poliki-poliki joan beharko dugu, bada, gauza guzti hauk behar den egoeran jartzera.

## POLITIKA GIROAREN ALDATZEA

Badirudi politika giroaren aldatzea ataurrean dugula. Badatoz politik alderdiak, etab. Euskaltzaindiak pozik ikusten du euskerari giro berri huntan zabaltzen zaizkion aukera eta ate berriak.

Eta egoera berriak berekin dakartzin eskabideei erantzutera lotu beharra dauka. Baina bere lan hori egin behar du alderdien gainetik et ate egonez. Izan ere —lehenago ere behin baino gehiagotan esan dut hau—, hizkuntza herri baten ona da, guztiona, eta Euskaltzaindia ere herri baten Instituzioa dugu, herri hunen hizkuntza zaintzeko eta aitzinatzeko jarria. Beraz, goi maila batean egotea dagokio beti ere, kultura eta jakintzari dagokion mailan, alegia.

Ez dugu ahanzi behar politika zatikatzaile eta berezle izan ohi dela, eta guk mundu horren gainetik mantendu behar dugula bai Euskaltzaindia eta bai euskera ere. Hain zuzen, denonak izan daitezentzat. Alderdi bati —edozein Alderdiri— gauza hauk lotzea, gaitzik txarrena izango litzateke.

## EUSKERAREN KOOFIZIALTASUNA

Hori ere ba omen dator. Edozeinek ikus lezake zer-nolako premia berriak eta lan handiak ekarriko dizkigun horrek, koofizialtasun hori titulu hutsa baino zerbait gehiago izango baldin bada behintzat. Ba ote daukagu tresna bera gertatua eta egoera berri huni erantzuteko eran jarria?

Egia da azken urteotan lan handia egin dela, baina egiteko dagoena beti da gehiago. Hiztegi egokiak falta zaizkigu. Batzuk bidean edo irten hurran omen dira. Betoz zorionean. Oinarrizko gramatikak ere behar ditugu. Eta beharbada ez dira egiten, hoik egiteko aitzinetik egin behar liratekeen azterketak egin gabe dauzkagulako. Etab.

Hemen ere esan daiteke Ebanjelioko hura: Uzta handi da, baina langile guti (Mt 9, 32).

Orai ikusten da ordu onean heldu ziola Euskaltzaindiak batasunaren hauzi huni. Azken urteotan zenbait pauso garrantzitsu eman dira bide horretan, baina oraindik falta zaiguna ez da guti.

Euskaltzaindiak ezin dezake dena berak bakarrik egin, baina nolabait lan guzti hunen gidari izan behar du. Horretarako behar-beharrezkoa da gure Elkargoa lan-tresna bizkorragoa bihurtzea. Bestela, gure aroak egotziko dizkigun ardu- eta zereginekin aurki gainez eginak eta gaindituak geldituzeko zorian egongo gara.

Gero eta gehiago gure lanari seriozki lotzeko garaia heldu zaigula uste dut.

## DIRU EGOERA ETA ORDAINKETAK

Diru egoera ere badirudi orai pixka bat lasaiagoa dela. Batzarrera etortzearen saria euskaltzainei ematen hasiak

gara. Orai arte ohituak ginen lanak urririk egitera eta inoiz kostuak nork bere sakeletik pagatzera ere. Baina, jakina, egoera horretan, luzarora begiraturik, instituzio batek ezin iraun lezake, eta lan handirik egin ere ez.

Horregatik, diru aldetik ere, poliki-poliki modu normal batean lan egitera joan beharra dago.

## ETXE BERRI BILBON

Esaten didatenez, aurki Bilboko gure etxe zaharra utzi edo aldatu beharrean gertatuko da Euskaltzaindia. Dirudienez, edifizio guzti hura zaharkitua dagoelako bota nahi du jabeak, gero beste bat egiteko, noski. Eta bien bitartean kalean geldituko ginatke. Horrelakorik gerta ez dakigun, Euskaltzaindiaren Zuzendaritza jestio batzuk egiten dabil. Arenalean Lan Kide Aurrezkiak edifizio bat eraiki behar omen du. Gure asmoa da Euskaltzaindiaren etxea edifizio horretan jartzea.

Gure Idazkariak dioenez, Euskaltzaindiari beharrezkoa zaio Bilbon aurpegi berri bat erakustea, orai bere nortasuna aitortu zaionean. Eta etxe nagusi edo zentrala Bilbon behar du. Euskal Herrian euskara salbatuko baldin bada, Bilbo konkistatu beharra daukagu, edo bestela Bilbok zapalduko gaitu. Beraz, orai da ordua. Gure egoera berri hunengatik ez da nekeza izango Diputazio bakoitzari hiru miloi eskatu eta bi lortzea —besterik ezean bi edo hiru urtez ordaintzen joateko, baina bereziki etxe erosketarako, beste presupuestoetarik aparte—. Lan Kide Aurrezkiak behar dugun kreditoa emango digu; berberak urteoro emango digun miloitik ordaintzen joateko. Hala hitz egin nuen Ormaetxearekin eta ongi zeritzan (Idazkariaren oharra).

Ribera kaleko etxea, guretzat hainbeste oroitzapenez gantzutua, ez genuke utziko, halere.

## OINATIKO "OLAKUA" TORRETxea

Oinatiko Udaletxeak hango torretxe lirain bat, XV. mendekoa, "Olakua" izenekoa, eskeini dio Euskaltzaindiari, jabetasuna eman gabe, noski, baina bai bere lanetarako erabil

dezan. Hasieran pentsatu zen Mitxelenaren Hiztegi lanak egiteko lantegia bertan jartzea. Baina hori ezingo balitz ere, beste gauza askotarako ez zaigu gaizki etorriko etxe hori. Oraindik, ordea, Oinatiko Ayuntamentuak bertan egin behar dituen obrak egin gabe dauzka.

Titulu etsaminak, ikastaroak etab. egiteko leku egokia izango litzateke hau. Lan bereziak egin nahi dituenak bertan izango luke lekua bake-baketan egin ahal izateko. Deba harroko euskerari buruz artxibo bat ere denboraz agian bertan jarri ahal izango da. Atlas Linguistikoa egiteko lantegi nagusia ere —inoiz hori egitera heltzen baldin bagara— beharbada han egongo litzateke ongi. Etab.

### MITXELENAREN HIZTEGIA

Azkueren Hiztegi handia gaurkotzeko ardura egotzi zion Mitxelena jaunari Euskaltzaindiak, orai dela zenbait urte. Lan huni buru ematea izango da beharbada gaur Euskaltzaindiak eskuen artean darabilen arazorik garrantzitsuena. Mitxelenak gai asko bildurik eta zati asko eginik ere badauzka. Baina lan handi hunen azken redakzioa egiteko laguntzailak, lan gela bereziak, astia eta behar bezalako giroa behar ditu, eta hori guztiori han Salamancan ez dauka.

Orai arte egin ditugu zenbait ahalegin arazo huni soluzio-  
ren bat bilatzeko, baina ez dute atarramentu onik izan. Orai, ordea, badirudi arazo hau ere konpontzeko bidean sartu dela. Martin Mateo jaunak Filosofia eta Letratuko Fakultatea Bilbon jartzea eskatu du, eta dirudenez, hori badator; Mitxelena, berriz, nahi dute Euskal Filologiako sailaren buru izan dadin. Hori hala gertatzen baldin bada, Bilbon bertan ipiniko da Hiztegi hau bururatzeke lan gela, behar diren laguntzailakin. Banco Bilbaori eskea egiteko asmoa dago, diru aldetik lan guzti hau babes dezan. Eta itxuren arabera, Banku hunek pozik hartuko du bere bizkar, Hiztegi hunen finanziaioa.

Beraz, horrela daude une huntan Hiztegi huni buruzko kontuak.

### HIZTEGI ARAU EMAILE ETA ENTZIKLOPEDIKOA

Horra beste lan handi bat, gaur noraezekoa bihurtu zai-  
guna. Egia esateko, Euskaltzainditik kanpoko gazte batzuen

kabuz ideia hau erne eta abian hasi zen. Diru aldetik Gipuzkoako Aurrezki Kutxak babesten du. Hizteggilea, berriz, hasiera batean Gabriel Aresti, baina orai Sarasola jauna dugu. Joan den urriko 29an Sarasola jaunak Hiztegi hunen aitzin asmoa agertu zuen Donostiako Diputazioan egindako hitzaldi batean. Han esan zuenez epeka joanen da lana eginez eta euskaltzainei zatiak pasatuaz, hauek beren oharrak egin ditzaten. 1980ko abuztuaren 30a jarri du Ibon Sarasola jaunak Hiztegi osoa Aurrezki Kutxaren eskuetan jartzeko. Euskaltzainek geure oharrekin lagundu beharko diogu Sarasola jaunari ohar edo argibide eske datorkigunean.

Ibon Sarasolak hau zion bere txostenean: "Gogo onez desiratzen dugu gure lana zurikeriarik gabe epaitua eta kritikatu izan dadin, baina kontutan hartuz ez garela euskararik ederrena edo goxoena edo garbienaren bila ari, eta are gutxiago ari garela protoeuskara eraiki nahiean. Gure eginbidea, eta hontaz ohartuki konturatzen gara, askoz ilunagoa eta eskergaitzagoa da, eta zenbaitentzat beharbada askoz prosaikoagoa, gure eginbidea kultur hizkuntza bat eratzen ahaleginean lehiatzea baita".

Bai. Lan prosaiko baina beharrezkoa: Euskera arrunt eta normalaren bideak eratzea.

## EUSKERAREN LIBURU ZURIA

Huna hemen beste obra handi bat, eta ia kasik egina dagoena, gainera. Dakizuten bezala, Lan Kide Aurrezkiak babesten du diru aldetik obra hau. Siadeco Elkarteak bere gain du lanaren egitea, baina betiere Euskaltzaindiaren gidaritzapean.

Obra hunek hiru zati edo atal izango ditu: 1) Euskeraren aldeko egintza zein arrazoitan oinarritzen den erakustea; 2) Euskeraren egoeraren aztertzea; 3) Dagoen egoeratik beste egoera hobe batera eramateko plangintza edo programazio bat egitea.

Lehenbiziko partea, bera bakarrik, liburu oso bat izango da. Eta liburu hori eginik dago. Erderaz behintzat. Bertan hamasei autorek parte hartu dute. Orai euskal itzulpena egin nahi da. Maiatzerako edo hor nunbait liburua kalean egotea nahi litzateke. Bigarren eta hirugarren parteaz beste liburu

bat egingo da. Hau Siadecok zuzenean prestatzen du, eta esan digutenez, oso aurreratua dago berau ere.

Dударik gabe, obra hunen agertzeak eta agertu ondoko eraginak ondorio larriak izango ditu, bai euskal kontzientzia azkartzeko, eta bai euskararen aldeko lanak plangintza orokor baten barnean eramateko ere.

## EUSKALTZAINDIAREN LIBURU SAILA

Euskeraren Liburu Zuriaz Euskaltzaindiak liburu sail berezi bati hasiera eman nahi dio. Beraz, zenbait liburu, azterketa lan —batez ere *Euskera* aldizkarirako luzeegi direnean eta batasun bat dutenean— liburu sail horretan atera ahal izango dira.

Orai baino lehen ere maiz agertu dira *Euskera* aldizkariaren orrietan benetazko liburuak: *Morfologia*, *Erderismos*, *El Acento Vasco*, *La Vida del Euskera*, *Voces Alavesas*, *Lexicón del Euskera dialectal de Eibar*, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*, etab. Baina horrelako lan luzeak aldizkarian ateratzen direnean, aldizkariaren beraren martxa trabatua eta bestelako gutunak atzeratu egi gelditzen dira. Beste batuk, hala nola Añibarroren *Voces Bascongadas Diferenciales*, aldizkaritik aparte atera ziren, baina soilak, eta orduan horrelako lanak galduak eta umezurtz bezala gelditzen dira, inongo bildumatan ez daudelako.

Horregatik, eta ez horregatik bakarrik, baita zenbait lani irtenbide bat bilatzeagatik ere, batzarre batean pentsatu zen liburu sail hori sortzea. Lehen alea Liburu Zuria izango litza-teke. Bigarrena, beharbada, Etxegintza Hiztegia. Gero hor da Leizarragaren obrak bir-argitaratzeko asmoa ere, Lafitte jaunaren oharrekin edo. Oinatiko Felix Ugarte jaunak ere badu fitxa mordo ikaragarria Oinatiko toponimiari buruz, artxiboetako dokumentuetarik aterea. René Lafon jaunaren lanek ere, inoiz baten batek bildu eta gertatuko balitu, sail huntan argitaratzeko modua izango lukete. Etab.

Baina, jakina, edizioetako mundu hunek bere estruktura-zioa edo antolamendua nahi eta behar du, guk ez duguna. Orai arte edizio lanetan dugun esperientzia ez dut uste guztiz zoriontsua izan denik. Batzorde bat beharko da ze liburu argitara erabakitzeko. Eta gero pertsona batzuk inprimeriekin har-emanetan egoteko, eta proba zuzentzearen erantzukizu-

na bere gain hartzeko. Hoiek berek edo beste batzuek zabaltzearen, harpidedunak egitearen eta salmenten ardura hartu beharko dute. Arazo korapilotsua da, beraz, eta premiak eta beharrak gainera datozkigun neurrian, beroiei erantzuteko era bilatu beharko da.

## “EUSKERA” ALDIZKARIA

Hau da, guztiok dakigun bezala, Euskaltzaindiak bere sortzetik duen agerkaria, bere erabaki, txosten, batzar-agiri etab. argitaratzeko. Azken urteotan urtean behin agertu izan da, beraz urtekari bezala, eta inoiz bi urte batean ere agertu izan dira. Gehienetan beranduegi eta atzeratuegi ibili da, eta hutsak ugariegi azaltzen dira haren orrialdeetan. Horregatik nion edizio lanetan dugun esperientzia ez dela guztiz ona. Inprentekin ere ez dugu zorion handirik izan. Orain beste bat hartu da —hirugarrena—, eta Rikardo Badiola jauna izango da inprenta arazoan arduradun. Gainera, badirudi hemendik aurrera urtean bi zenbaki ateratzeko aukera izango dela, eta gure aldizkaria —noizbait— txukun, garbi eta behar bezala eta bere garaian aterea ikusi ahal izango dugula.

Euskera aldizkariaren lehen garaian —gerra aurrekoan, alegia—, 18 tomo agertu ziren. Gerra ondoan, berriz, hogeitau agertuak dira jadanik. Baina gerra ondoko tomoen numerazioan ez da jartzen hau bigarren aroa dela jakiteko seinalerik, eta orduan badirudi lehenbizikoa izan ez balitz bezala gelditzen dela. Horregatik San Martin jaunak uste du jarri beharko litzatekeela bigarren aldiaren aipua, aurreko garaia ere hor dela gogoarazteko.

Baita ere esaten du San Martinek lehen aldiko lanen Aurkibideak egin ziren bezala, sasoiak dela bigarrengearenak ere egiteko, eta gero biak, bai lehen aldikoak eta bai bigarren aldikoak ere, batera argitaratu. Aurkibide hoiek ikertzaile eta ikasleen lana asko errezten dute.

Beste gauza bat, *Euskera* aldizkariaren batzordeko bilkuran erabaki zena: aldizkari horrek bibliografi saila behar duela, eta bertan Euskaltzaindiari egileek erregalatzeko dizkioten liburuen aipamena egin behar dela. Eta zinez uste dut horrenbeste esker merezi dutela liburuak erregalatzeko dizkiguten jaunek. Gainera, zerrenda hoiek beste bentaja bat dute: euskal bibliografi lana erreztutzea. Eta hori nere ustez urteoro

egin behar litzateke, eta ez hiru urtetik hiru urtera edo, zeren atzerapen horrekin alde batetik gero eta zailago baita egitea, eta bestetik beranduko aipamenak bere balioaren gehiena galtzen baitu. Orai bibliografi sail hori errebistarako egitea, noren lana da? Liburuzainarena ote? Ez dakit, baina erabaki beharko da zerbait. Ez dut uste gauza hain zaila denik. Liburu bat ematen digutenean, atera berorren fitxa, eta urtearen buruan fitxa denak inprimategira eramán: hori da guztia.

### EUSKALTZAINDIAREN LIBURUTEGIA

Euskaltzaindiaren etxeko liburutegia behar bezala ordenatu eta katalogatzea, eta fitxeroak egitea ikerketak egin nahi dituztenei erraztasunak emanez: horra beste asmo bat zaharra, baina orai arte burutu ez duguna.

Ni mintzatu nintzen gure Ordenako Aita Kandido Zubizarretarekin; Aita hau espezialista da lan hunetan —bibliotekak apailatzen, alegia—, eta bera prest zegoen gurea katalogatzeko eta ordenatzeko, beharbada laguntzailleren batekin; baina gero etxe aldatzearen istilua sortu zen, eta aldatzea egiten denerako utzi da kontua.

### DONOSTIAKO ORDEZKARITZA ETA BULEGOA

Euskaltzaindiak hemen Donostian Gipuzkoako bere Ordezkaritza du eta zenbait batzordek bertan lan egiten dute. Axolarik handiena du guretzat Ordezkaritza hau ongi eraturik egoteak. Ordezkaritzako lanen arduradun bat behar genuen eta horren bila genbiltzan aspaldi. Azkenean aurkitu da behin-behinean behintzat kargu hau hartuko duena: Arnalde jauna. Ongi etorria eta eskerrak eman nahi dizkiot.

Ordezkaritzako lanaz gainera, bi batzorde dabilta hemen lan berezi bana egiten: bata Matematikazko hiztegia, eta bestea Gramatikazkoa prestatzen, alegia. Gramatikazko batzorde hori uste dut aski geldo ibili dela bolara batean, baina orai bizkortu da. Edozeinek ikus lezake zer garrantzia duen guretzat, gramatika gaiak euskeraz erabili ahal izateko, hartako terminologia bat hautatua eta ahal dela finkatua edukitzea, eta hori da gramatika batzorde hunen xedea. Matematikazko batzordea, berriz, esan didatenez, gogotik ari da lanean, Elhuier taldearen laguntzaz. Etxegintza hiztegiko batzordeak ere hemen Donostian egiten du bere lana, baina hortaz beherago esango dut zerbait.

## BESTE ORDEZKARITZAK

Donostiakoaz gainera, Euskaltzaindiak baditu beste Ordezkaritza batzuk ere: Arabako hiriburuan bat eta Nafarroakoan beste bat. Baina egia esateko, hauk ez daude oraindik behar bezala taxutuak. Uste dut beharko dela poliki-poliki hoiien egitura eta lan moldea pentsatu. Baita bada Baionan beste bat zabaltzeko asmoa ere. Orai arte, ordea, ez da asmo hau bururatzeko biderik izan.

## HIZTEGI ESPEZIALIZATUAK BULTZATZEAZ

Euskera irakaskintzarako gaitze edo egokitze lan huntan hiztegi espezializatuak noraezeko tresnak dira. Aipagarri da, hemen, Jakin Taldeak argitara duen Natur Zientzien Hiztegia. Baina Jakintzen eremu hau zabala da, baztergabea. Zatarain eta beste jaun batzuk ofizioetako izen berezien hiztegia prestatzen ari dira. Jakina, Euskaltzaindiak ezin du inolaz ere berak bakarrik itsaso zabal hau inguratu. Bestelako taldeen lana bultzatu behar du, eta, ahal den neurrian, denen artean koordinazio, batasun eta bat-etortzea bilatu. Badakit ez dela gauza erraza, baina behar-beharrezkoa da hizkuntzak oinarritzko batasun bat eta joera nagusi batzuk gorde ditzan. Bestela, lan guzti huntatik aurrerapena atera beharrean, nahaspila segi daiteke. Eta nahaspila horrek euskal irakaskintzaren ondorioa eta kausitzea arriskutan jarriko luke.

Eta ikus dezagun orai, laburzki izango bada ere, zenbait batzordetako lanen egoera.

## ETXEGINTZA BATZORDEAREN EGOERA

Batzorde hunen egoerari buruz hau esan nezake.

Alde batetik Jose Miel Zumalabe jaunak egina du Azkue-ren hiztegitik eta beste leku batzuetarik hartutako hitzen biltuma guztiz ederra eta galanta. Baina, jakina, herriko euskeraren hitzak dira hauk, eta gaur Arkitekturak baditu hitz berri edo tekniko asko, herriko euskeran ez daudenak, eta euskeraz nola esan behar diren jakin behar direnak. Lan huntan ari da orai batzordea. Zumalabe jaunak eskutitz batean hau esaten dit: "Bestalde adierazi nahi nizuke astean behin biltzen garela, Elhuyar-en bulegoan, Jose Mari Aranburu, Andoni Sagarna, Iñaki Azkune eta neroni (beraz Arkitekto bat, bi Ingeniero eta Apareilari bat) hiztegi hau aurrera era-

mateko asmo sutsuarekin. Plangintza osotu dugu eta gaiaren alderdi guziak sartzen dira (Materialak, Lanabesak, Teknologia, etab.). Jadanik bukatuak ditugu Materialen atalean ZURAK, HARRIAK eta METALAK. Esperantza dut benetan burutuko dugula, oraingo huntan, zahar xamarra den helburu hau'' (abenduak 27, 1976).

## PERTSONA IZENDEGIA

Badakizue euskal izenen eske etortzen zaizkigula Euskaltzaindira. Eskabide huni erantzuteko Euskaltzaindiak izen zerrenda bat prestatu behar izan zuen 1966. urtean, eta gero beste bat zabalagoa 1972an. Orduko ege egoera kontuan izanik egin ziren izendegi hoik. Orai, berriz, legea aldatu denez gero, euskal izen gehiago jartzeko aukera dago. Lehen-bailehen edizio berria eta zabalagoa egin beharko da.

Sail hau guztiz korapilotsua dela badakit. Neurgea, beste aldetik, eta bere hedadura guztian ezin har daitekeena, oraitkotz behintzat. Begien aurrean dut edizioa gertutzen ari den Satrustegi jaunaren txostena. Bertan hau dio: ''Hipokoristikoekin erabaki bat hartu beharra izango da. Izen bakoitzak aldakuntza asko izan ohi du eta liburu gotorra egin laiteke denak sartuz; baina folklorekeria eta errespeto gabeko izendegia egingo genuke''.

Nik ere hala uste dut. Gaztelaniaz, esate baterako, Paco eta Pepe ez dira izen ofizialak bezala hartzen; beste maila batekoak dira. Guk ere aukera bat egin beharko dugu. Badira gure artean izen asko etxe giroan edo lagun artean erabiltzeko on direnak, baina guztiok ohartzen gara etxe edo lagun maila hortarik kanpoan ez daudela ongi.

Gure izendegi horretan sartzen diren izenik gehienak euskaldunak dira, hots, jatorriz euskaldun direnak edo hartakotzat jotzen direnak. Baina, jakina, goizago edo beranduago beste problema bati ere heldu beharko zaio, alegia: jatorriz euskaldun ez diren izenak baina gure artean arrunt erabili ohi direnak, nola euskaldundu behar diren. Esate baterako, Francisco, Martín, Cirilo, Claudio, Crispín, Ambrosio etab. Izen hoik eta hoik bezalako beste asko, euskeraz nola dira? Hori ere finkatu beharko da. Badakit istilu larria dela, eta dena bat batean egiterik ez dago. Oraikotz gure izendegia, kasu bat edo beste kentzen badugu, ez da horrelako izenekin sartzen.

## ADITZ BATZORDEAREN EGOERA

Batzorde hunek lan ederra burutu zuen aditz laguntzai-  
learen batasuna eginez. Gero, berriz, aditz sintetikoaren bata-  
sunean ari da. Huntan ere lanik gehiena egina du. Batzordea-  
ren azken bileran, ordea, eztabaida batzuk edo zalantza bat-  
zuk sortu ziren, eta geroztik ez da kolperik eman, Altuna ere  
Salamancara joan baita. Baina lan hau mugiarazi behar da.

Altunak hara zer dioen: "Sintetikoari banagokio, zer esan  
zuk ez dakizunik? Ia osoro finkaturik gelditu zen eta azken  
ixkanbilak zerari zegozkion: inon eta inoiz agertzen ez diren  
adizkiak asmatu behar ahal ditugun, bai ala ez, eta asmatu-  
rik onartu ala ez onartu. Ia guztion azken iritzia izan zen, asmat-  
zen ibili gabe (zenbait jende ez baita hitz berri asmazale),  
gehienez ere, euskal literaturan agertzen direnak eman eta  
kito, ez zatekeela besterik egin behar. Agertzen direnak bilt-  
zeko lana norbaiti egotzi ziztaion. Xabierri?" (urtarrilaren  
8an egindako eskutitza).

Dena dela, hau bultzatu beharra dago. Arrazoi bat dago,  
gainera, horretarako: Gipuzkoako Diputazioak miloi erdi  
pezeta eskeini dizkigu Aditz Sintetikoaren argitalpena egite-  
ko.

## HERRI ETA HERRITARREN IZENDEGIA

Lan huntan ari den batzordeko Idazkariak —Lizundia jau-  
nak— argitasun hau eman dizkit:

"Lehen zerrenda biak onartuak dira eta 1976ko *Euskeran*  
argitaratzeko daude.

Onartutako zerrendetan eskualde hauk datoz: Gorbeial-  
dea (Araba), Durangaldea (Bizkaia), Leintz-Oinati (Gipuzkoa),  
Sakana (Nafarroa, Iruineko merindadea), Erro-Aezkoa (Nafa-  
rroa, Zangoza-Agoitz merindadea). Lehen zerrendakoak guz-  
tiak.

Bigarren zerrendakoak: Aiara (Araba), Lea-Artibai (Mar-  
kina, Bizkaia), Debarroaren behealdea (Gipuzkoa), Larraun  
eta beste bost haran (Nafarroa, Iruineko merindadea) eta  
Erronkari-Zaraitzu (Nafarroa, Zangoza-Agoitz merindadea).

Orai eskualde hauk zabalduko dira: Mendebaleko Laut-  
da (Araba), Urolaldea (Gipuzkoa), Busturia (Gernika-Bermeo,

Bizkaia), Baztan-Bidasoa (Iruineko merindadea, Nafarroa), Elortz-Esteribar (Nafarroa, Zangoza-Agoitz merindadea).

Eta horretara ia aurten zatika onartzen dugun Hego Euskal Herri gehiena. Laguntzaile gehiago behar ditugu herrietan, batez ere "trabajo de campo" egiteko.

Iparaldeko fitxak banaturik daude, eta beren autonomiaz lanean dihardue. Gainera han Dassance-ren lan estimagarria egina dago".

## HERRI MAILAKO EUSKARA EDO OINARRIZKO EUSKARA

Aita Berriatuaren txostena hebraieraren berpizteari buruz entzun ondoan, hemen ere, Israel-en bezala, euskera molde bat ikas erraza, hango "Ivrit qalá" horren antzera, ia ez ote den eratu behar galdetu zen. Asmo hau aztertzeko eta beharbada aurrera eramateko batzorde bat jarri behar zela Bilbon, esan zen. Euskera erraz hau ez litzateke izango euskera traketsa edo nolana hikoia, noski, jatorra baizik; baina, hori bai, zerbait edo beharbada hagitz murriztua.

Zinez, Berriatuak planteatu digun problema ez da txantxetakoia, serio hartzekoa baizik. Euskal Herrian euskaldunak miloi erdi edo hor nunbait dira; euskerarik ez dakitenak, berriz, bi miloi, eta dakitenek ere askotan oso euskera murrizta dute. Nola euskera ikasarazi guzti hoiei? Hizkuntza bere ipi-apa guztiekin ikastea eta menderatzea ez da berriketa; izigarriko lana da, eta oso gutik egin dezake lan hori. Besteei ere zerbait eskeini beharko diegu. Bestela euskerak ez luke etorkizunik.

Mourguiart jaunak darabilzkin kezka eta asmoak ere agian ez daude Berriatuak azaldu dizkigunetarik oso urrutit. Beharbada ez legoke gaizki Berriatua jauna eta batzorde hunktako izango direnak jaun harekin har-emanetan izatea.

## IKER ETA JAGON SAILEKO LAN BATZUEN BEHARRAZ

Iker lanen beharraz mintzatu zaigu Mitxelena jauna gure batzarre batean, oraindik denbora asko ez dela. "Hizkuntzaren aldetik euskal istudioei zor diegun neurrian eta mailan ari ote gara, ordea? Ez dut uste", zion berak. Euskaltzaindiak bere itzala gorde nahi baldin badu, ezin bazter dezake sail hau. Konta ezinak dira hizkuntzaren eremuan aztertu eta

argitu gabe ditugun hauziak edo egin gabe dauzkagun zereginak. Hoietakoa batzuk aipatzen dizkigu berak, gainera.

Adibidez:

—Euskeraren azentu edo doinu berezia aztertzea.

—Herriko euskera bera ahal den zehazkiena eta osokiena paperetan jasotzea. Etnologoez lan ederra egin digute hune-tan, baina hoik beren ikuspuntutik ari dira. Hizkuntzalariak, berriz, hitzak hitz diren aldetik hartzen ditu, eta egikizun hau nork hartuko du Euskaltzaindiak hartzen ez badu?

—Zenbait lekutako hizkerak galzorian daude, eta aspaldidaniko bereizkuntzak galtzen ari dira. Horregatik hizketa eta bereizkuntza hoi biltzea lehen-bai-lehen egin beharra dago. Bihar beranduegi izanen da.

—Hiztegi lanetan, berriz, Mitxelenak salatu duen makurra hau da: hizkuntza egungo premietarako egokitzean aintzina-koek egin zuten lana ez dela behar aina kontutan hartzen. Esate baterako, gramatika saio berrietan, Harrietek, Etxeberriek eta bestek egindako lana ez dirudi ezagunegia denik.

—Gero, gramatika arloan badira hain beste eta hainbeste istilu argitu gabe daudenak. Esate baterako, eguzki aldeko euskalkiek batzutan *-ra* eta beste batzutan *-rat* erabili ohi dute. Zer bereizkuntza dago, ordea, batetik bestera? “Nola-koa den igerrri diodala uste dut” —dio Mitxelenak—, “baina igertzea ez da frogatzea”.

—*Sartzen bada, sar badadi; sartzen (sartuko) balitz, sar baledi...* Non daude mugak bataren eta bestearen artean?

—Sintaxisa ere ia osoa egiteke daukagu. (Huneraino Mitxelenaren txostenetik).

Iker sailaren eta Jagon sailaren arteko mugak ez dira beti garbi egoten. Segitun aipatuko ditudan lan hauk ez dakit zuzen zein sailletakoak diren; baina beharrezkoak edo behintzat oso komenigarriak ditugula, ene ustez, ez da dudarik:

—Salgai dauden euskerazko liburu guztien katalogoa osatzea eta argitaratzea. Lan hau oso aurreratua zegoen eta azke-nean hor bide bazterrean gelditu zen. Hain zaila ote da bururatzeara?

—Euskal aldizkarietako lanen fitxagintza. Istudio mailan ari direnena, noski.

—Idazkariak beste hau ere aipatzen du: Adiztegi batua argitaratzea, baina maiztasun handiko formekin soilki.

—Ikaslarientzat zenbait lan gertatzea euskal hizkuntzaz eta literaturaz, bibliografiarik premiazkoena emanez.

—Lafitte jaunaren oroigarriak magnetofonoz jasotzea.

—H letrari eta letra hunekin adierazten den soinuari buruz azterketa edo monografia moduko lan bat egitea, behar bezala oinarritua, noski. Guztiok dakizute nolako eztabaidak sortu diren gure artean letra hunen aitzakiaz, batzuk alde eta beste batzuk kontra. Baina egia esan, puntu huni buruz azterketa sakon eta behar bezalakorik ez da agertu. Eta ene ustez oso komenigarria litzateke. Lan horrek beharko luke ixurki bat —nolabait esan— jakintza mailatakoa, eta beste bat praktikotasunari begiratuaz: letra hunen ortografia erakustea, eta abar. Gainera, hunelako lan batek arrakasta izango luke memento huntan, gaia nolabait modako bihurtu da eta. Orai, betiko kontua: Lana nork egin, ordea? Hor dago koska.

Hemen aipatu ditudan lan batzuk beharbada Euskaltzaindiak lagun jakin batzuei agindu beharko lizkieke, ordainduz, jakina.

## BATZAR TXOSTENAK

Eta azken puntua: batzar txostenena. Bai Iker saileko eta bai Jagon saileko puntu asko ere trata daitezke hoietan. Santamaria jaunak esaten zidan hainbeste gauza ditugula noiz erabakiko begira, batez ere irakaskintzak eskaturik. Erabakiko baldin badira, ordea, aurretik oinarritzko azterketak egin behar dira. Berak uste du zenbait txosten-gai aitzinetik hautatu eta zenbaiti agindu beharko litzaiokeela, oinarritzko puntuen gainean argia egiteko, eta gero, argia egin ondoan, segitun erabakietara pasatu. Hunelako puntu bat aipatu zidan, gainera: nola izendatu behar diren letrak euskeraz. Gauza jakina da Sabino Aranek izen hoik ezarri zituela. Aranarenak dauden-daudenean hartu, ala beste gisa batekoak? Nolanahi den, Matematikak euskeraz irakasteko, puntu hau erabakia edukitzea beharrezko omen da. Eta horrela daude beste istilu asko, batez ere irakaskintzak eta euskeraren ofizialtasunak erabakitzea eskatuko digutenak. Estatuaren edo erresumen izenak: horra beste gai bat erabaki beharrekoa, eta batzarrean tratatua, gainera, baina oinarritzko puntuetan batasunik ikus-

ten ez zelako —geron iritzietan, esan nahi dut—, hor gelditu zen erabaki gabe. Baina nahi-ez-nahi, premiak eskaturik, hori eta beste gauza asko ere bir ikusi eta erabaki beharrean egongo garela uste dut. Axular-ek esanak balio du hemen ere: “Zeren untziak, nahi ezpadu ere, berekin baitarama. Hala garamatza, bada, gu ere egungo uholdeak. Ezta pausatzerik, ezta gelditzerik, eta ez trikatzerik” (Ikus. Ax 40). Hain zuzen, hori gertatzen zaio gaur Euskaltzaindiari. Zorionez ala zoritxarrez ez dakit. Baina ezin diogu geure eginbideari uko egin.

Gainerakoan, eta beti bezala, euskaltzain oso nahiz laguntzaileoi batzarreetarako txostenak prestatzeko erregua egin nahi dizuet.

## **PROPOSAMENA: EUSKALTZAINDIAREN EPE LUZERAKO ETA EPE LABURRERAKO PLANAZ**

*M. Lasa*

Azken urteotan gero eta gehiago eta nabarmenago ari gara ikusten euskararen normaleztapenarantz abiatzeko gurari biziaren agerpenak. Horien artean aipa ditzagun, exenplu gisa, besteak beste:

- Euskararen ofizialtasuna eskatzeko berroki egin diren kanpainak.
- Ikastolak izan duen arrakasta Euskal Herri guztian zehar eta beronen dinamika irakaskuntzaren maila berriak urratsez urrats menperatzeko: aureskolatik hasi, E.G.B., B.U.P. eta Profesional Ikastegietaraino, oraingoz bederen.
- Euskara kultur hizkuntza bilaka dadin, han hemenka lanean diharduten taldeen ahalegin sistematikoak.
- e.a.

Normaleztapen joeraren sinalagarri dira ere erakunde beronen baitan, azken urteotan bereziki, sortu diren arazo eta lan berriak, hala nola, euskararen batasunari buruzkoak eta hiztegegintzakoak. Guztionek, Euskaltzaindiak normaleztapenaren alderdia hartu duela adierazten digu.